

KONTROL MOZIOA

DONOSTIA KIROL PATRONATUKO NEGOZIAZIO MAHAIAN ADOSTUTAKO AKORDIOAK BETETZEN ARI EZ DIRELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko urriaren 17an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Kirol Patronatuko negoziazio mahaian, instalazioetako lanaldien inguruko akordio bateratuak hartuta daude.

Uztaileko negoziazio mahaian, sindikatuek salatu zuten hartutako erabakiak ez zirela betetzen ari, eta zuzendariak, arrazoia emanik, berriro ez zirela gertatuko aditzera eman zuen.

Urriko Pertsonen Zerbitzu Batzordean gaiaren inguruan galdetu dugunean, zinegotzi ordezkariak udan eta bi instalaziotan soilik akordioak jasotzen ez zituzten lanaldiak burutu zirela aitortu du eta, sindikatuei azaldu zitzaien moduan, berriro ez zirela gertatuko azaldu digu.

Iraila eta urrian, ordea, aipaturiko bi instalazioetan ez ezik, beste instalazio batzuetan ere akordioa betetzen ez zituzten lanaldiak gauzatu dira.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala Donostia Kirol Patronatuko negoziazio mahaian adosten diren lanaldiak

Donostian, 2016ko urriaren 21 ean

Naiara Sampedro Perez